

GASTEIZKO INGENIARITZAKO UNIBERTSITATE ESKOLAREN BULETINA



INFORMAZIO BULETINA, 91. zk., 2015eko IRAILA

Buletin honek hizkuntza EZ sexista erabiltzen du

(<http://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdadehu.es>)

Jarduera akademikoa

Gradu Amaierako Lana: Car Crosseko txasis baten analisi estrukturala

Alberto Urrutia Montejok bere Gradu Amaierako Lana aurkeztu du, Mekanika Saileko Gonzalo Carlos Gonzalo irakasleak zuzendutako GRALa.

GRAL honen berezitasun nagusia da Albertok eta bere lagunek ibilgailu bat eraiki dutela rally lasterketetan parte hartzeko.

Ikerketaren xedea izan da lasterketetarako txasis tubular bat sortu eta eraikitzea. Autoarentzat sortu duten egiturak erresistentzia-pisu erlazio handia du, eta eraikitako ibilgailua Car Cross kategoriakoa da (autokros rallye txapelketako IV. dibisioa). Ibilgailu mota honek prestazio handiak eskaintzen ditu, fabrikazio kostu txikiarekin. Serieko 600 cm³-ko motozikleta propulsaileak erabiltzen dituzten ibilgailuak dira, eta potentzia-pisu erlazio handia ematen die horrek.



Eskolako webgunean, **Moto Student** VG taldearen bannerra sartu da. Bertan aurkitu ahal duzue proiektu horri buruzko informazioa. Informazio hau beste hedabide batzuetan ere argitaratu da.

Doktorego tesiak

Vanessa García eta Amaia Calleja zoriondu nahi ditugu doktoregoa lortzeagatik. Amaia Callejak bere tesia ("Método de fabricación de componentes de alto valor añadido por combinación de mecanizado multi-eje y aportación láser") martxoan defendatu zuen. Vanessa Garcíaak apirilean defendatu zuen: "Síntesis dimensional óptima de mecanismos planos con restricciones geométricas".

Prestakuntza pilulak

Ikastorratza aldizkariaren 14. zenbakiko monografiko berezia, Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako Prestakuntza Pilulei buruz: Metodologia aktiboak unibertsitate irakaskuntzan. Prestakuntza Pilula horiek UPV/EHUREN EHUNDU programaren bidez finantzatu ziren.



Monografikoan, Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako 10 irakasleek parte hartu dute, eta eskolak irakaskuntza/ikaskuntza metodologia aktiboekin duen konpromisoaren erakusgarri da. Hori horrela, ikastegiko irakasleek ERAGIN programan laguntzen dute, ez bakarrik parte-hartzaile gisa, baita tutore modura ere.

Graduen akreditazioa

Ekainaren 9an, kanpoko ebaluatzaileen bisita izan genuen ondoko graduak ebaluatzeko: Bilbon, Industria Kimikaren Ingeniaritza, Geomatika eta Topografia Ingeniaritza, Ingeniaritza Mekanikoa, Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza. Eta Donostian, Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza. Titulazioetako gure koordinatzaileek parte hartu zuten kasu guztietan. Abagunea baliatu nahi dugu eskerrak emateko, ebaluatzaileen bisitan ikastegiko langileek izandako inplikazioa eta dedikazioa direla eta.



Unibertsitate publikoek bat egiten dute Geomatika zabaltzeko

Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako Gradua ematen duten estatuko unibertsitate publikoetako hamar eskola elkartu egin dira graduari bultzada emateko. Erabaki hau azken urteotan aldian behin egin diren zuzendarien batzarren emaitza izan da. Zientzia honen sustapen kanpainan, UPV/EHUko Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolak ere parte hartzen du.


Garai bateko Topografia, Kartografia eta Geodesia Ingeniaritzaren izen aldaketak zio nagusi bat du: teknologia berriek metodo eta praktika tradizioaletan duten eragina, aukera profesional berriak sortu dituen diziplina honetan dihardutenentzat.

Sektoreko hainbat iturriren arabera, Geomatikako ingeniariaren lanbidea "zirrargarria eta etorkizun handikoa" da, zeharkakotasuna ezaugarri duen diziplina delako; hau da, Geomatika aditu batek zeregin ugari izan ditzake, era askotako sektoreetan: nekazaritza, meatzaritza, herri administrazioak, marketina, garraioa, energia edo eraikuntza.


Enpresetako praktikak

2014/15 ikasturtean, hitzarmen hauek sinatu genituen:

2014-2015 ikasturteko hitzarmenak



Praktikak lortzen dituzten ikasleen %



Jardunaldiak

“Katastroa, Geomatika eta Jabegoa” topaketa, apirilaren 17an

Katastroaren Legearen erreformaren testuinguruan, UPV/EHUko Gasteizko Injeniaritzako Unibertsitate Eskolak eta Euskadiko Topografia Injeniaritza Teknikoen Elkargoak jardunaldi bat antolatu zuten, “Katastroa, Geomatika eta Jabegoa” izenburupean, apirilaren 17an, eskolaren ekitaldi aretoan.

Jardunaldiaren helburua izan zen topagune bat sortzea euskal Katastroaren, Jabego Erregistroaren eta Geomatikako profesionalen artean. Hizlariek

higiezinen trafikoaren barnean duten eginkizuna azaldu zuten, eta beren iritzia eman zuten Katastroaren Lege berriak beren esparruan izango duen eraginari buruz.

Topaketan egon ziren, besteak beste, dekanoa, idazkari nagusia eta jarduneko diruzain nagusia.



Ingeniaritzari aplikatutako Teknologien Bilakaera

Maiatzaren 5ean, Fernando Garciak (ABGAMeko PLM Soluzioen zuzendaria) hitzaldi bat eman zuen Ingeniaritzari aplikatutako Teknologien Bilakaerari buruz. Marrazketa tauletatik errealitate areagoturaino, 2D eta 3D diseinutik eta simulaziotik igarota. Non gaude? Zer erabiltzen dute gure enpresek? Zein dira joera nagusiak?

Masterra aukeratzeko orientazio jardunaldia

Maiatzaren 6an, masterra aukeratzeko orientazio jardunaldia egin zen, eskolaren ekitaldi aretoan. Hizlari izan ziren: **Josu Arce San Vicente** (Elektronika) (Energia Berriztagarrien Garapena eta Automatizazioa Masterra, SEAS (Goi Ikasketa Irekiak); **Roberto García Fernández** (Mekanika) (Industria Ekoizpenaren eta Kudeaketaren Antolakuntza Masterra) (UPV/EHU Gasteiz); **Aitor Urkiola Pujana** (Mekanika) Industria Ingeniaria (Mondragon Unibertsitatea) (Ingeniaritza Energetiko Iraunkorra Unibertsitate Masterra) (UPV/EHU Bilbo); **Nerea Fuentes Sustatxa** (Kimika) (Master of Science in Engineering-Chemistry) (Syddansk University, Danimarka); **Javier López**

Arrebola, Industria Ingeniaritzako Masterra (Burgoseko Unibertsitatea); eta **Mariya Pankiv** (Mekanika) Industria Ingeniaritzako Masterra (UPV/EHU Bilbo).

Leica Geosystems Tour Jardunaldia

Ekainaren 12an, Leica Geosystems Tour jardunaldia egin zen: zehazki, **Leica Geosystems** enpresaren **“Be Captivated”** berrikuntzaren aurkezpena. Gainera, **Laser Escaner 3D** gailuen gure portfolio berria ere aurkeztu zen.



Bestetik, **Aibot X6 v2** hexakopteroaren erakustaldi bat ere egin zen, UAV sistema profesional eta balioaniztunena ingeniartzaren edozein adarretarako.



Erakustaldia bereziki aproposa izan zen Topografiako profesionalentzat eta Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako graduiko ikasleentzat. Ivan Murillo izen zen hizlari, eta 45 lagunek parte hartu zuten.

Aireko eta lurreko fotogrametria mintegia

2015eko ekainaren 18an, Beñat Garciak eta Aitor Bastarrikak antolatutako mintegi bat egin zen, atal osoaren baimen eta laguntzarekin, irakasle eta ikasleentzat, topografia sektoreko profesionalentzat eta, oro har, I+G+berrikuntzan interesatutako edonorentzat. Hizlari aritu ziren Joan Fernandez eta Iñigo Fernandez, Al-top enpresakoak. 30 bat entzule izan zituzten.

Mintegian, V10 teknologiaren garapena azaldu zen, 360°-ko argazkiak aldi berean egitea ahalbidetzen duen 12 kamerez osatutako sistema batean oinarritua, eta UX5 teknologia, tripulatu gabeko hegazkina, kalitate handiko hegaldi fotogrametrikokoak egiten dituen km² gutxi batzuetako eremuetan.



Bisitak

Santiagoko Unibertsitate Teknologikoko (Dominikar Errepublika) kideen bisita

Dominikar Errepublikako Santiagoko Unibertsitate Teknologikoko arduradunak bisitari izan genituen eskolan, eta arreta berezia jarri zuten gaur egun Txilerekin dugun titulazio bakoitzeko hitzarmenean. Hitzarmenaren kopia bat eskuratu zuten. Juan Lora (Ingeniaritzaren koordinatzaile nagusia), Frank Rodriguez (Berrikuntza eta Kalitate Kudeaketa arloko errektoreordea) eta Rafael Romero (Romsa enpresa).

Gainera, ikasketa metodologia berriez ere galdetu ziguten, eta enpresetako praktikei buruz.



Bestelakoak

Liburuaren Eguna

Apirilaren 22an, Liburuaren Eguna ospatu genuen eskolaren atzealdean, egitarau zabal batekin: Liburuaren Txokoaren inaugurazioa, liburu klasikoaren banaketa, Vilnius Gediminas Unibertsitate Teknikoaren aurkezpena eta txokolate nahiz bizkotxo dastaketa.



Parradust taldearen kontzertu solidarioa

Parradust musika taldeak crowdfunding kanpaina bat jarri du martxan Lánzanos.com webgunean, Ataxia Telangiectasia-ren ikerkuntza bultzatzeko. Eskolan 500 euro bildu ditugu ekimenaren alde. Hori dela-eta, Parradust taldeak kontzertu bat emango du eskolan, irailaren 24an, arratsaldeko 18:30ean.



Berria

Berria egunkariak jendurrean hitz egitearen garrantziaz argitaratu duen "Zubiak egiteko zailtasunak" izeneko artikuluak gure lankide Miguel Calvo aipatzen du, Yolanda Ruiz de Zarobe irakaslearekin batera Toastmaster elkartearen sortu duena.